



PRENTSA OHARRA

Mugaz bestaldeko BIHARTEAN ganberak "Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa" sortu du

- Gipuzkoa eta Iparraldeko 5 enpresek eta 2 teknologia gunek osatzen dute "Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa".
- BIHARTEANek sektore ekonomiko guztietako 600 enpresei eskaini die zerbitzua martxan daramatzan 30 hilabete hauetan.

Donostia, 14 de febrero de 2013. Baiona eta Gipuzkoako merkataritza ganberak silikonen sektorea etengabe hazten ari zela konturatu ziren eta Gipuzkoa eta Iparraldeko enpresa ezberdinekin hasi ziren lanean "Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa" sortuz.

"Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa" bi lurraldeetan kokatutako 5 enpresek eta 2 teknologia gunek osatzen dute. Enpresa hauek mugaz bestaldeko Poloa sortzea erabaki zuten, talde moduan Euskadiko industria aktibitate berri bati ikuspena emateko: **Silikona Likidaz egindako piezen diseinua eta produkzioa.**

Egia esan, bost enpresek aktibitate honen balore kate osoa irudikatzen dute: diseinutik hasi, molde jakinen fabrikazioa eta piezen produkzioa. Teknologia gunek proiektuari zaintza teknologikoa eta prestakuntza ematen dioten bitartean.



PRENTSA OHARRA

"Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa" osatzen duten enpresak honako hauek dira: Cauchopren, Cilkautxo, EBL Polyester, Olaberria eta Tajo. BIHARTEANen, Baionako Merkataraitza Ganberaren eta Gipuzkoako Bazkundearen laguntzari esker eta hamar hilabeteko lanaren ondoren proiektu hau aurrera eramateko aukera izan dute.

Cauchopren eta Olaberria

Irungo Cauchopren enpresa eta Ustaritzeko Olaberria "Silikona Likida mugaz bestaldeko Poloa" osatzen duten enpresetako bi dira.

Irungo Cauchoprenek, 1983an hasi zuen bere bidea kautxuzko pieza moldeatuak egiteko helburuarekin. Gaur egun aktibitate berdinarekin jarraitzen du, berezko kautxua eta kautxu sintetikoaren sorta zabal bat lehengai moduan erabiliz. Hala ere, eta teknologien etengabeko aldaketek Cauchoprenen industria aktibitatea silikona likidako kalitatezko pieza berrien garapenera bideratu du. Egun Irungo enpresa honek helburu hau betetzeko makineria egokia du eta honako merkatuei erantzuteko asmoa du: Alemania, Belgika, Txina, Espainia, Frantzia, Polonia, Portugal, Errumania, Txekiar Errepublika eta Tunisia.

Ustaritzeko Olaberriak, berriz, 30 urte baino gehiago daramatza injekzio termoplastikoko moldeak egiten industria sektore guztietan. Baina orain 4 urte "silikona likidoa" injektatzeko moldeak egitera bideratu zuen bere aktibitatea. Berriki, moldeak bezeroie eman aurretik probatu eta dointzak egiteko aukera ematen duen 100 tonatako prentsa batean inbertitu dute. Enpresa honen bezeroak nagusiki Espainian eta Frantzian daude, baina baita Afrika Iparaldean eta Mendebaldean ere.

30 hilabete

BIHARTEAN sortu zenetik, 2010eko uztailetik, joan den urteko abendu arte balantzea erabat positiboa izan da. Epe honetan, Gipuzkoako



PRENTSA OHARRA

Bazkundeak eta Baionako Merkataritza Ganberak sortu zuten erakundeak, sektore ekonomiko guztietako 600 enpresei eskaini die zerbitzua.

Biharteanen zerbitzuak eskatu zituzten enpresen %57ak taldeko ekintzetan parte hartu zuten: mugaz bestaldeko B2B topaketetan, jardunaldietan, bezeroen eta enpresen arteko bisitetan eta bi lurraldeen arteko benchmarking sectorialean. Ehuneko 40ak berriz, bakarkako aholkuak jaso zituen: ekonomia, administrazioa eta zuzenbide arloan eta baita ekintza komertzialak aurrera eramateko aholku estrategikoan ere.

Zerbitzuak eskatu dituzten enpresak lurraldeka hartzen baditugu parekatuta dagoela esan dezakegu, % 52 Gipuzkoakoa delako eta %48a Iparraldekoa.

BIHARTEANek izan dituen emaitza positibo hauek eta mugaz bestaldeko enpresa proiektuetan duen eskarmentuak, Euroerregioaren estragiaren barruan parte hartzera bultzatu dezake. Azpiegituren garapen planetan enpresa sektorearen parte hartzea indartu dezake eta baita enpresen arteko berrikuntza, industria eta nazioartekotzearen elkarlana bultzatu ere.

Izan ere, AECT Akitania-Euskadi eta BIHARTEAN harremanetan daude. Mugaz bestaldeko Ganbera eta Akitaniako Merkataritza Ganberen sarea eta Euskadikoa, Euroerregioaren arlo ekonomikoaren barnean talde estrategiko bat izan dadin.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irene Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

Tfno: 943 000 310 / Móvil: 688884347